

ARGIBIDE OROKORRAK ETA BALIOESPENA

1. Proban bi aukera (A eta B) emango dira eta horietatik bat hautatu beharko duzu.
2. Soilik hautatu duzun (A edo B) aukerako galderari erantzun. Behin aukera bat hautaturik, soilik balioetsiko dira aukera horretatik erantzundako galderak.
3. Atal bakoitzean adierazten da lor daitekeen puntuazioa.
4. Erantzun guztiak erantzun-koadernoan idatzi behar dira, ez enuntziatuan.
5. Proba teorikoko erantzunak hurrenkeran eta bi zutabetan idatzi behar dira koadernoaren lehen orrialdean. Lehen zutabean, lehen hamar galderen erantzunak jarriko dira, eta, bigarrenean, berriz, azken hamar galderenak.

A AUKERA

A) PROBA TEORIKOA

Erantzunetatik bat bakarrik da zuzena. Erantzun zuzena: 0'3. Erantzun okerra: -0'1.
Erantzunik gabe: ez da kontuan hartzen. Puntuazioa gehienez: 6 puntu. Puntuazioa gutxienez: 0 puntu.

1. Jabetza industrial honelako baliabidea da:
 - a) Fisikoa.
 - b) Finantzariora.
 - c) Ukiezina.
2. Mikroenpresa bat honako hau da:
 - a) Lehen sektoreko enpresa bat.
 - b) Hamar langile baino gutxiago dituen enpresa bat.
 - c) Bigarren sektoreko enpresa bat.
3. Enpresa indibidualean:
 - a) Erantzukizuna mugatua da.
 - b) Gutxienez ere bi bazkide daude.
 - c) Kapital-mugarik ez dago.
4. Merkatuen txertatzea aukera-mota hau da:
 - a) Espezializazioa.
 - b) Askotarikitzea.
 - c) Integrazio bertikala.
5. Enpresa-kontzentrazioa honekin berdintzen da:
 - a) Barne-hazkundera.
 - b) Hazkunde naturala.
 - c) Kanpo-hazkundera.
6. Ondare Garbia honako hau da:
 - a) Aktiboaren eta Pasiboaren arteko aldea.
 - b) Aktiboaren eta Pasiboaren batura.
 - c) Pasiboaren eta Aktiboaren arteko aldea.

7. Eguneroko liburua
- Nahitaezko liburua da Kontabilitatean.
 - Enpresak hainbat kontutan egindako eragiketak taldekatzen ditu.
 - Enpresaren Hasierako balantze xehekatuarekin irekitzen da.
8. Balantzearen Aktiboa honekin lotzen da:
- Inbertsioa.
 - Finantzaketa.
 - Zorrak.
9. Epe laburreko inbertsioak:
- Hilabeteko iraupena edo laburragoa dute.
 - Urtebeteko iraupena edo laburragoa dute.
 - Bi urteko iraupena edo laburragoa dute.
10. Autofinantzaketa honako hau da:
- Epe laburreko finantza-baliabidea.
 - Norberaren finantza-baliabidea.
 - Kanpoko finantza-baliabidea.
11. Merkataritzako deskontuan:
- Efektuaren balio izenduna enpresak kobratzen duen kopurua da.
 - Efektuaren benetako balioa letran agertzen den kopurua da.
 - Deskontua epemuga iristeko falta diren egunen eta interes-tasaren arabera da.
12. Kapital-zabalkuntza batean:
- Akziodun zaharrak kaltetuak izaten dira beti.
 - Akziodunek baliabide berriak jarri behar izaten dituzte beti.
 - Akzio berriak jaulkitzen dira beti.
13. Produktuak eta ekoizpen-prozesuak taxutzeko diseinu-ingeniaritza honelako ekoizpen-faktorea da:
- Sortzailea.
 - Oinarritzakoa.
 - Zuzendaritzakoa.
14. Masa-produkzioan:
- Langileek espezializazio txikia dute.
 - Eskuz ekoizten da.
 - Makineria espezializatua erabiltzen da.
15. Kostu finkoak:
- Epe laburrari dagozkio bakarrik.
 - Ez dago kostu finkorik enpresak ekoizten duenean.
 - Ekoizpen-mailarekin aldatzen dira.
16. Nahiak:
- Eskari bihurtzen dira beti.
 - Kultura-faktoreek eragina dute haiengan.
 - Elkartruke batean baliozko zerbait jasotzeak ematen duen satisfazioaren neurria dira.
17. Helburuen arabera zuzendaritzak:
- Jardueren uniformetasuna lortzen du.
 - Enpresa burokratizatzeke arriskutik urruntzen du.
 - Langileei motibazioa galarazteko arriskua dauka.

18. Hierarkia honako hau da:

- a) Elkarri egokitzea.
- b) Aginpide formalaren banaketa erakunde osoan.
- c) Lanaren banaketa.

19. Maslow-ren arabera, honako hauek dira mailarik goreneko giza-beharrak:

- a) Sozialak.
- b) Autoestimu beharrak.
- c) Autorrealizazio beharrak.

20. Ordainketa Balantza, inguru orokorraren barnean, mota honetako faktorea da:

- a) Ekonomikoa.
- b) Politikoa.
- c) Legezkoa.

B) PROBA PRAKTIKOA

LEHEN ARIKETA

(GEHIENEZ ERE: PUNTU 1)

AUTOAK izeneko enpresa automobil-modelo berriak ateratzeko aukera aztertzen ari da. Horretarako 150 milioi euro ditu erabilgarri aurrekontuan. Honako taula honetan, enpresa aztertzen ari den lau aukerak aipatzen dira, bai eta beharrezkoak diren inbertsioak eta haietako bakoitzean espero diren kutxa-fluxu garbiak ere (milioi eurotan).

EREDUA	INBERTSIOAREN ZENBATEKOA	1. URTEA	2. URTEA	3. URTEA
SUPERCAR	80	30	40	50
MEGAFASHION	50	10	30	20
FAST	100	40	30	30
FOURWHEELS	40	20	20	20

Kapital-kostua % 10 bada, ordenatu inbertsio proiektuak errekupeazio-epe eguneratuaren arabera, eta adierazi zein proiektu burutuko diren. Demostratu.

Oharra: bi hamarrenekin biribildu zifrak.

BIGARREN ARIKETA

(GEHIENEZ ERE: 3 PUNTU)

"Ibilaldiak Oihanean" turismoko zerbitzuen enpresa bat da. Honako hauek dira enpresa horrek 2008ko abenduaren 31n aurkeztutako kontuen saldoak eurotan:

Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	3.000
Kutxa	3.500
Kapital soziala	10.000
Eraikuntzak	15.000
Epe laburreko kredituak	7.000
Epe laburreko zorrak	1.300
Epe luzeko zorrak	4.000
Zordunak	2.000
Makineria	12.200
Lehengaiak	5.000
Ekitaldiko emaitza (1)	¿?
Jabetza industrial	1.300
Epe laburreko ibilgetu-hornitzaileak	2.100
Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritza-efektuak	4.600
Legezko erreserba	¿?

Ustiapen-sarrerak 8.000 € izan ziren 2008an, eta ustiapen-gastuak 2.900 €.

Finantza-gastuak kalkulatzeko dira jakinik zorraren batez besteko interes-tasa % 10 izan dela epe horretan.

Irabaziaren gaineko Zergaren ezarpen-tasa % 30 da.

(1) Idatzi Ekitaldiko emaitza lortzeko egin diren kalkuluak.

- Idatz ezazu Egoera Balantzea, ondare-masen arabera sailkatua, eta ordenatu Aktiboa likidezia txikienetik handienera, eta Ondare Garbia eta Pasiboa galdagarritasun txikienetik handienera. **(1,75 puntu)**
- Azter ezazu enpresaren finantza-egoera, erabilitako ratioak aipatuz. Interpreta itzazu lorturiko emaitzak. **(1,25 puntu)**

OHARRA: bi hamarrenekin biribildu zifrak.

B AUKERA

A) PROBA TEORIKOA

Erantzunetatik bat bakarrik da zuzena. Erantzun zuzena: 0'3. Erantzun okerra: -0'1. Erantzunik gabe: ez da kontuan hartzen. Puntuazioa gehienez: 6 puntu. Puntuazioa gutxienez: 0 puntu.

1. Akzioak honelako baliabidea dira:
 - a) Fisikoa.
 - b) Ukigarria.
 - c) Ukiezina.
2. Eraginkortasuna honela neurtzen da:
 - a) Output-en eta input-en arteko zatidura.
 - b) Outputen eta inputen batura.
 - c) Outputen eta inputen biderkadura.
3. Hornikuntza-funtzioa azpisistema honen barruan dago:
 - a) Azpisistema fisikoa.
 - b) Azpisistema finantzarioa.
 - c) Zuzendaritza-azpisistema.
4. Lan-sozietatea honelako sozietatea da:
 - a) Pertsonalista.
 - b) Kapitalista.
 - c) Ekonomia sozialekoa.
5. Partaidetzetan banatutako kapitala sozietate-mota honi dagokio:
 - a) Sozietate kolektiboa.
 - b) Erantzukizun mugatuko sozietatea.
 - c) Sozietate anonimoa.
6. Atzeranzko integrazioaren adibidea honako hau da:
 - a) Automobilak egiten dituen enpresa batek altzairua fabrikatzea.
 - b) Ehungintzako enpresa batek bere denda-katea irekitzeko erabakia hartzen du.
 - c) Irina ekoizten duen fabrikatzaile batek ogia egiteko erabakia hartzea.
7. Ustiapen-royalty-a honekin lotzen da:
 - a) Aldi baterako enpresa elkarteak.
 - b) Interes ekonomikoko europar taldeak.
 - c) Frankiziak.
8. Kontuko anotazioek hau adierazten dute:
 - a) Kontuak ordezkaturako ondare-elementuaren identifikazioa.
 - b) Kontuak ordezkaturako ondare-elementuaren balioaren handiagotzea edo txikiagotzea.
 - c) Kontuak ordezkaturako ondare-elementuaren balioa.
9. Balantzearen Pasiboa honekin lotzen da:
 - a) Inbertsioa.
 - b) Finantzaketa.
 - c) Egitura ekonomikoa.

10. Inbertsio batean zenbatekoa hau da:
- Kopuru erabilgarri bat denboraren une jakin batean.
 - Inbertsoreak aldi batez kapitalari uko egiteagatik eta bereganatzen duen arriskuarengatik eskatzen duen ordainsaria.
 - Hasierako kapitalari kapital horrek aldi batez emandako interesa batuz lortzen den emaitza da.
11. Epe laburreko zorrak dira:
- Barneko finantza-baliabideak.
 - Norberaren finantza-baliabideak.
 - Besteren finantza-baliabideak.
12. Finantza-leasineko kontratuan:
- Bi enpresak parte hartzen dute: enpresa erabiltzaileak eta leasin-enpresak.
 - Enpresa erabiltzailearen aldeko erosteko aukera izan behar da.
 - Enpresa erabiltzaileak kuotak ordaintzeari utz diezaioke.
13. Akzioek eta betebeharrek antzekotasun hau dute:
- Bien dirua itzultzen ahal da epemuga igaro ondoren.
 - Biak inbertsio-aukerak dira aurreztaileentzat.
 - Biek maiztasun jakin bateko errendimendu konstanteak sortzen dituzte.
14. Oinarrizko ikerketa ez da:
- I+G jarduera.
 - Estatuak normalean egiten duena.
 - Enpresek normalean egiten dutena.
15. Lehia perfektuko orekan ez da betetzen honako hau:
- Sarrera marjinala eta kostu marjinala berdinak izatea.
 - Prezioa eta kostu marjinala berdinak izatea.
 - Batez besteko kostu finkoa eta prezioa berdinak izatea.
16. Marketineko aldagai estrategiko bat da:
- Produktua.
 - Prezioa.
 - Sustapena.
17. Aurrekontuak:
- Planen kuantifikazioa dira.
 - Pertsonen eta taldeen arteko lanaren antolaketa eratzen dute.
 - Jarduera zehatz bat egiterakoan bata bestearen atzetik jarraitu beharreko urratsek osatzen dituzte.
18. Departamentalizazio geografikoaren abantaila nagusia hau da:
- Eraginkortasuna handiagoa izatea.
 - Erabakiak bezeroengandik hurbil hartzen dira.
 - Bere malgutasuna.
19. Motibazioaren teorien artean, aukerei dagokiena hau da:
- McGregor-en teoria.
 - Vroom-en teoria.
 - Mayo-ren teoria.
20. Enpresaren izen ona:
- Berehala eraikitzen den baliabidea da.
 - Zerbait egiten jakitea da.
 - Garrantzi handikoa da zalantzez beteriko mundu batean.

B) PROBA PRAKTIKOA

LEHEN ARIKETA

(GEHIENEZ ERE: PUNTU 1)

Erratzak fabrikatzen dituen enpresa baten funtzionamendu kostuak hauek dira:

Industria-lantegiaren alokairua	20.000 €
Eskulanaren kostua ordu bakoitzeko	20 €
Material kostua erratz bakoitzeko	10 €

Erratz bat fabrikatzeak bi orduko lana dauka. Erratza 100 eurotan saltzen da merkatuan.

- Kalkula ezazu errentagarritasun-atalasea.
- Kalkulatu ezazu zenbat erratz ekoiztu diren, enpresak 10.000 euroko galerak izan baldin baditu.
- Irudika ezazu grafikoki errentagarritasun-atalasea, galeraren eremua eta irabazien eremua seinalatuz.

BIGARREN ARIKETA (GEHIENEZ ERE: 3 PUNTU)

Honako hauek dira Akatsak izeneko inprimategiak 2008ko abenduaren 31n dituen kontuen saldoak eurotan:

Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak	¿?
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	33.200
Informatika-aplikazioak	19.600
Bankuetako kontu korronteak	21.300
Kapital soziala	77.005
Bezeroak	29.100
Bezeroak, kobratzeko merkataritza-efektuak	23.300
Epe luzeko zorrak	40.000
Zordunak	19.200
Garraio-elementuak	117.800
Informazioa prozesatzeko ekipoak	23.300
Salgaiak	9.800
Ekitaldiko emaitza (1)	¿?
Epe laburreko ibilgetu-hornitzaileak	10.300
Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritza-efektuak	20.600
Legezko erreserba	62.700

Interesen eta zergen aurreko mozkina, 2008an, 13.406 € izan zen.

Finantza-gastuak kalkulatzeko dira jakinik zorraren batez besteko interes-tasa % 6 izan dela 2008an.

Irabaziaren gaineko Zergaren ezarpen-tasa % 35 da

(1) Idatzi Ekitaldiko emaitza lortzeko egin diren kalkuluak.

- Idatz ezazu Egoera Balantzea, ondare-masen arabera sailkatua, eta ordenatu Aktiboa likidezia txikienetik handienara, eta Ondare Garbia eta Pasiboa galdagarritasun txikienetik handienara. **(1,75 puntu)**
- Hurrengo ekitaldi ekonomikoan, enpresak inbertsio bat egin, eta aktiboa 100.000 eurotan gehitu da, eta interesen eta zergen aurreko mozkina 20.100 euro izatera iritsi da.

Kalkula ezazu lortzen den finantza-errentagarritasuna, inbertsio berria norberaren baliabideen bidez bakarrik finantzatzen baldin bada.

Kalkula ezazu lortzen den finantza-errentagarritasuna, inbertsio berria bakarrik finantzatzen baldin bada enpresak 2008an zeukan zorraren interes-tasa bereko maileguaren bidez.

Azal ezazu palanka-efektua. **(1,25 puntos)** OHARRA: bi hamarrenekin biribildu zifrak.